

BERMEO / Ipuina kontatu eta beldurra zelan kendu azalduko dute

Gurasoei zuzenduriko hitzaldia emango du Juan Carlos Alonsok, gaur, liburutegian

E. Goienetxea

Ipuina beldurra galarazteko bitarteko gisa. Izenburu hori ipini diote gaur liburutegian Juan Carlos Alonsok emango duen hitzaldiari. 19:00etan hasiko da berbaldia, liburutegiko goiko solairuan.

Gurasoentzako hitzaldia izango da Galtzagorri elkarteko kideak emango duena. Helburua, umeei beldurrak gainditzen laguntzea ipuinak erabilita. Beldurrak bi eta sei urteko umeei zelan eragiten dien azalduko du Alonsok. Beldurrezko ipuinak zergatik dituzten gustuko, zergatik erakartzen dituzten umeak, eta ipuin batek zergatik lagundu ahal dion umeari bere beldurrak ulertzen, onartzen eta gainditzen. Baina, ipuinak berak bakarrik ere berez beldur guztiak ez dituela kentzen ohartarazita.

Gurasoek beraien umeak hezteko tresna baliagarri bat gehiago erakutsiko du Alonsok. Beldurrezko ipuinek umeak traumatizatzeko arriskua dutela uste duten gurasoei beste ikuspuntu bat ematen saiatuko da.

Alonsoren iritziz, umeak larregi babesten saiatzen dira gurasoak, eta ipuinetan dena arrosa kolorekoa dela azaltzeak kontrako eragina ere lortzen duela. Umeek sentitzen dituzte beren azalean beste errealitate ezkorragoak, kezkatzen dituztenak, eta horiek kanporatzeko beharra daukate.

Horregatik dira, Alonsoren ustez, honelako ipuinak erakargarriak: ...Nor zen ohartu zirenean, ordea, izutu ziren eta ezkutatu ziren azkar, ahalik eta ezkutuen. (...) Otsoak, halere, denak aurkitu eta irentsi zituen, hormako erlojukoa, gazteena izan ezik....